


Caldersen seruma



Hemen du atsedeen Nevaresek

Ipuin antologia bat
 Egilea: Pere Calders
 Itzultzailea: Antton Olano
 Argitaratze urtea: 2016
 Argitaletxea: Erein eta Igela

IÑIGO ROQUE EGUZKITZA

Literatura Unibertsala bilduma muga-zabaltzailea da sarri: gure mundu ttikian oharkabean pasatzen diren autoreak ekartzen dizkigu begietara, bestelako kanon baten bidez (kanoiek ezarririkotik harago, nahi baduzue). Horren adibide nabarmena dugu Pere Calders, Katalunian hain estimatua den ipuin-idazlea eta gure artean ezezagun dena. Iberiar literaturen entelekiak, izan ere, biltzar, kongresu, eskuliburu eta bestelako ele-mele akademikoak ugari ekarri bai, baina irakurgaiak urri.

Caldersen bilduma bikain honek idazleak 1955-1978 tartean idatzitako narraziorik gailenak jasotzen ditu. Izenburua, guztiarekin ere, nahasgarri gerta liteke, Nevaresen *nouvelle* Mexikon girotutako beste narrazio batzuekin batera eskaini ohi baitzaigu katalanez, *eta beste ipuin mexikar batzuk* izenburu-eranskinarekin batera (Amerikako herrialde hartako erbestean eman zituen idazleak diktadura frankistaren lehenbiziko bi hamarkadak). Euskarazko bilduman ez dira, beraz, Mexikon idatzitako edo girotutako ipuinak soilik eskaintzen; aitzitik, gutxienak dira halakoak.

Ipuin gehienetan, bi bulko nabari dira: errealitatearekiko lotura eta ironia. Izan ere, narrazio guztiek badaukate irrealitate pizar bat, edo hiperrealitate bat, zer-nola ulertzen den. Esan dezagun ezohikotik hurbil daudela egoerak baina pertsonaiak arruntak direla, baita logikaren bideak ere. Tarteka, iruditu zait haurren pentsamolde laño horretatik ere ez daudela hain urrun gogoeta-hariak, betiere gizarteko bizimodu egonkorraren absurdoa azalertzeko (edo azalortzeko).

Ironia, noski, paroxismoraino eramandako logika horren sendabidea da. Etsi duenaren kritika da, nolabait ere, baina samurtasunez betea. Idazlearen ahotsa ia beti lehen pertsonan mintzo zaigu, eta bera besarkatzera eraman gintzakeen patetismo errukarri bat dario.

Gizarte bidegabea ere maiseatzen du, ezkilak nahiz xilintxak erabiliz. Biziek baino eskubide gehiago dituzten hilak ageri dira; ageri dira izen-suizidak, bizitza-asmatzaileak, arkeologo horizontalak, aberasbide-liburuak, bizi-serumak, mundu espiralak, astronauta amateurak... Jakin-minez irakurriko duzue nola imajinatzen zuen Caldersek 1995eko mundua 1978ko hartatik (teknologian, berak uste baino gibelago gaude; zurruntasun sozialean, aldiz, paretsuan).

Estiloaz, ororen gaineratik, Antton Olanoren lan fina goretsi nahi nuke. Lan zintzoa, trabailu gogorra (bera besarkatzeko adinakoa). Guk hain erraz irakurri dugu, berak hain neketsu zertu duen testua. Gainerakoan, azpimarratzeko bete zaigu liburua, alafede! Hainbeste dira gogoan hartzeko solas eta esaldiak. Bereziki heriotzaren eta biziaren arteko muga lausoa danbatekoz eraisten dutenak izan ditugu kutunenak. Izan bedi aberaskiloen hilerriko zaindariak hilobi-okupatzaileez esandako hau adibide: «Orain denak berdinak omen garenez, koitadu hauek bizian dastatu nahi dituzte heriotzaren abantailatako batzuk» [alegia, panteoien aterpean lehor bizitzea].

Eta, funtsean, klase-borroka hain dotore agertutako horretatik, buruan luzaro iraungo dute pobreen bizinahi irudikorak eta burgesen bizi-behar aspergarriak. Zabaldu ditzagun mugak, eta eman diezaiogun aukerabat Caldersi.